

EUSKARA XXI. MENDEAN INDARBERRITZEN SEGITZEKO ANTZEMATEN DIREN AHULEZIAK, MEHATXUAK ETA AUKERAK

Hogeita hamabost urte kopuru nahikoa da autogobernu-aldi honetan arlo batzuetan izandako aldakuntzak nolabaiteko perspektibaz ikusi eta balioesteko. Osasun-arloan, esaterako, maiz goraiatzen ditugu, arrazoiz gainera, Eusko Jaurlaritzak lorturiko emaitza onak, edo gure erkidegoaren administrazio publikoaren hurbiltasun txalogarria, edota gizarte-zerbitzuen bikaintasuna, adibidez, beste autonomia-erkidegoek inbidiaz ikusiak.

Irakaskuntzari buruz, ordea, eta bereziki gure hizkuntza nazionala berreskuratu eta haren erabilera publiko eta pribatuari sendotzeari dagokierenez, ordea, emaitzak ez dira maila berekoak izan, horrek aurrerapausorik egin ez denik esan gura ez duen arren. Egia da, esate baterako, frankismo garaian ez bezala, autonomia-urteotan eskolatu diren ikasle guztiei euskara, gutxienezko maila batean behintzat, irakatsi zaiela, eta, horren ondorioz, gure erkidegoan adin batetik beherako gazteen artean –azken urteotako etorkin batzuen salbuespenez– ez dagoela, aurreko garaian ez bezala, euskaraz deus ere ez dakienik. Ordea, barruko jakite hori jendartean, gizarteko harremanetan nola islatzen den galdetuz gero, bada hor guztiok deitoratzen dugun zuloa, erabilerarik ezarena, maiz estatistika hutsez estali edota saihestu nahi izaten dena.

Dugun elebitasun ofiziala gorabehera, gure erkidegoko toki askotan, Bizkaiaren bereziki, kaleko erabilerak moteltzen segitzen du. Herritar euskaldunen artean erdara gero eta maizago entzuten da, eta euskaraz hasitako elkarrizketa askok erdal bukaera izaten dute nabariro. Bestalde, eskolaldia euskaraz izan arren, leku askotan ikasleek ez dute beren etxeko euskara, maiz aski mordoiloa, hobetzen, eta, are gehiago, anitz herritan, eskolako eredu batuaren ordean, herriko azpidialekto oraintsu arte agrafoei eusten diete, inoiz idatzi gabeko forma tamalgarriak bultzatuz.

XABIER KINTANA

IDAZLEA ETA EUSKALTZAIN OSOA

EUSKARAREN EGOERA AGONIKOA

Euskararen egoera txarragatik hil-kanpaiak jo nahi izatea ez da gaurko kontua. Halere, ez gara gu, ez eta azken belaunaldietakoak ere, iragarkizun iluneko etsipen beltz horretan samintzen garen lehenengoak. Jada XIX. mendearen hasieran, Wilhelm von Humboldtek euskarari, zeraman bidetik, ez zion ematen mende baten bizitza besterik, gehienez jota. Zorionez, hain uste ezkorrak ez ziren, eta ez dira, bete, baina beheranzko joerak aurrera segitzen du, mehatxuka.

Historian zehar euskara luzaro hizkuntza barbaroa eta kulturarako desegokia zela aldarrikatu dute haren etsaiek. Salaketa horrek, oinarriz, hizkuntza moduan euskarak berez omen zeuzkan akatsak eta hutsuneak azpimarratu nahi zituen, eta funtsean, inperialistek beren indar bidezko konkista bidegabeak justifikatzeko aitzakia hutsak ziren, nola edo hala maskaraturik, errepikatuz. Halere, gaur egun, linguistikaren irakaspenen harian, ezin esan daiteke hizkuntza batzuk, berez eta egituraz, besteak baino gaiagoak, egokiagoak edo hobekak direnik. Dena den, praktikan, kritika horretatik zerbait ontzat eman daiteke, logika hutsezkoa baita: hots, hizkuntza batzuek, izan duten praktika zabalari esker, administrazioan, irakaskuntzan, ikerketan eta komunikazio orokorrean izandako erabilera luzean trebaturik, egokiagoak direla holako ibilbiderik izan ez dutenak baino. Ongi entrenaturiko atleta, lasterketa batean, sekula ariketa fisikorik egin ez duen pertsona baino hobeto moldatzen dela esan daitekeen bezala.

Hori dela eta, euskaldunok, harrotasunez gure hizkuntzaren gaitasuna askotan predikatu dugun arren, barrutik, *inter nos*, ongi konturatu izan gara euskara, arlo batzuetako erabilerarik ezagatik, ez zegoela oraindik aldameneko beste hizkuntzen parean. Axularrek berak, jada 1643an, argi zioen bere obraren aitzinsolasean: *“Baldin egin balitz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin*

hala ez bada, euskaldunek berek dute falta, eta ez euskarak”.

Baina erabilerarik ezagatik gure hizkuntzak bere barnean izandako akats horiek, idazleok, irakasleok eta Euskaltzaindia, guztion lanarekin, gainditzen ahalegindu gara. Lehenengo eta behin, ortografia batzen saiatu ginen, horretarako Hendaian joan den mendearen hasieran eginiko bileran ipar eta hego aldeko euskaltzaleok bilduta. Geroago, Francoren diktadurapean ere, Euskaltzaindiak 1959an euskal hitzak zeintzuk ziren argitzeko egindako adierazpenarekin, nazioarteko hitzak ere euskararako onartu genituen, eta gehiegizko purismotik saihestu. Geroztik, 1963an eta 1964an, Baionan, Txillardegiren gidaritzapean, euskaltzale eta idazle batzuek hizkuntzaren ortografiaren eta morfologiaren eginiko proposamenak mamitu ziren, horiek ere batasunaren alde. Ondoren, eta aurreko bideari jarraikiz, Arantzazun (1968) eta Bergaran (1978an) Mitxelena- eta Villasanteren buruzagitzaz euskara baturako etengabeko pausoak eman ziren, ortografia, morfologia eta aditz laguntzaile zein trinkoak batzeko. Harrezkero, Euskaltzaindiak beste hainbat eta hainbat erregela, arau eta aholku eman ditu, gure nazioak ere bere hizkuntza batua izan dezan.

Baina erabilerarik ezagatik gure hizkuntzak bere barnean izandako akats horiek, idazleok, irakasleok eta Euskaltzaindia, guztion lanarekin, gainditzen ahalegindu gara

Bai, triunfalismorik gabe eta egia aitortuz, harrotasunez esan dezakegu azken hamarkadetan

euskaldunok lan handia egin dugula, gure mintzairak kulturarako zituen barne-oztopoak gainditzeko. Euskararen batasuna bera ere, behin horretan seriozki hasi eta gero, denbora laburrean burutu dugu, eta aski ongi gainera. Nazioarteko terminologia gureganatzeko ahaleginak ere beren fruitua ematen ari dira, bai irakaskuntza ertainean eta bai unibertsitate mailan ere. Bistan denez, hor ere duela ehun urte pentsaezinak ziren emaitza pozgarriak ditugu jada begien aurrean. Gaur ezinezkoa litzateke, Suarezen denboran ez bezala, kultura minimoa daukan pertsona batek euskarak fisika atomikoa irakasteko balio ote duen publikoki galdetzea, halakoari edozeinek, burlaz, berehala aurpegiaratu liokeelako, aspaldion argitaratu diren liburu ugarietz gainera, Internetetik jaso daitekeen informazioa ugaria ere, holako ergelkeriak jendaurrean galdetu baino lehen behintzat jakin beharrekoak.

Lehenago bezala, gaurko euskararen egoera oraindik agonikoa da, hitz honi Unamunok ematen zion esanguran, hots, bizitzaren eta heriotzaren arteko borroka etengabea ari da

Baina hizkuntzaren barne-egokitasuna konpontzeko gai izan bagara ere, ez da gauza bera gertatu bere kanpo-erabilerarekin. Eta hau bi aldetatik. Batetik, leku askotan jendeak, eta gazteek batez ere, darabilten euskararen kalitate eskasa dago, hizkuntza hori gutxitan erabiltzen duten seinale, eta hori ez da, soilki, klase-ordu nahikorik bete ez duten euskaldun berrien akatsa, txikitako euskaldun askok maiz ez dute euskara hoberik erakusten. Eta horren errua ez zaie gazte horiei, besterik gabe, egotzi behar, haien inguruan oraindik sortzen jakin ez dugun euskal girorik ezari baizik. Inguru guztia, ahoz eta idatziz euskaraz [ere] dagoenean, euskaraz mintzatzeko motibazioa askoz handiagoa baita, euskaldunok beti, begiz eta belarriz, erdara hutsezko giroan aurkitzen garenean baino.

Espero izatekoa zen, erdaraz behintzat gertatu den bezala, azken urteetako euskara erosiari,

mordoilotu eta apala gainditu eta irakaskuntzari esker, eskolan eredu hobea eta jasoagoa ikasi eta erabiltzen hasiko zirela, baina batzuek herriko forma hutsei eusten diete, denerako maila mintzatu bakarra erabiliz, eskolan beren euskara lantzeko aukerarik izan ez zuten pertsonen aho hutsetik ikasia. Eta jada hori dakitelako, beren herriko beste euskaldunekin hitz egiteko gai, euskaldun osoak direlakoan daude, handik kilometro batzuetara bizi diren beste euskaldunen euskara ez dutela ulertzen ahazturik, eta horrexegatik haiekiko tratua erdaraz eginez. Horrela, euskara gaurko euskal gizarte osorako hizkuntza nazional bihurtu ordez, tokian tokiko hizkera bitxitan birzitatzen zaigu. Are okerrago, erabiltzaile horietako batzuk, berena zenbat eta arraragoa, eta guztiok ulertu ahal dugun eredu batutik zenbat eta urrunago, oraindino pozago, gure herria tribu sakanatu batzuen multzo anarkikoa besterik ez dela harrokeriaz erakutsi nahi balute bezala. Eta jokaera antinazional horiek noren eta zeren mesederako diren ez da zertan esan behar ere, buru pixka bat daukanak erraz uler dezake eta.

Bestalde, gerra aurretik euskara hipergarbiaren obsesioa genuen euskaldunok, gure hizkuntzan erdal itxura edo usaineko berba guztien ordez, euskal sustraiko hitz jatorrak proposatuz (*txadona, jau-pari, urrutizkin, akeita, txindi* eta *inpernuko hauspoa* modukoak) horrelako asko txarto edo desegokiro sortuak zirela konturatu gabe, euskaltzale haien borondate ona gorabehera, asmatu zirenean gaur dakizkigun gauza asko ez zekizkitelako. Halere, orduekoei aitortu behar zaie behintzat, euskaraz kezkatzen zirela, gure hizkuntzaren kanpo-itxura hobetzen saiatzen eta erdal eraginetik garbitzen ahalgintzen zirela, beti asmatu ez arren.

Gaur baina, askok alderantzizko lasterbidea hobesten dute: edozein erdal berba arrunt hartu, grafia aldatu, eta c edo ch-ren ordez k, z eta tx banaz maskaraturik, dena eginik dago. Horrela barreiatu zaizkigu, adibidez, *tailerrak, txakolí, pintxos, potes, rabak, kaxuelak* eta antzeko erdarakadak, euskal lexikoa, antza, *Diccionario de la Real Academia Española*ko hitz guztiekin aberasteko asmo zoragarriarekin, euskal hiztegiak ere badirela, eta onak gainera, ahazturik. Gainera, euskaraz barik, normalean erdara hutsean idazten dute, baina tarteka erdal berba horietako bat euskal grafiaz ipiniz, idatziari horrela "euskal" ukitu engainagarri bat emateko. Zer nahi duzue esatea? Batzuek eta besteek asmatu ez arren, iruditzen zait lehenagoko puristek zintzoago jokatzeko zutela, euskara gehiago zekitela.

Edonola ere, herri askotan, ohiko euskaldunen arteko elkarrizketak, kale-giroa adibidez, gero eta erdaldunago dagoela esan daiteke, eta jai egune-tako hiriburuetak "turisten" erdal eragina oso ageria izaten da euskaldun herritxo jatorretan. Lehenago bezala, gaurko euskararen egoera oraindik agonikoa da, hitz honi Unamunok ematen zion esanguran, hots, bizitzaren eta heriotzaren arteko borroka etengabea ari da.

EZ DEZAGUN SEGI LUZAROAGO ERRU GUZTIA FRANCORI LEPORATZEN

Euskararen atzerakadaren errua, maiz Francori egotzi diogu. Egia da, lehen, antzina esango nuke, diktaduraren garaian, eta lehenago ere bai, monarkiaren denboran eta geroagoko errepublika aldian ere Estatuaren administrazioa, irakaskuntza, hedabideak, soldadutza.... dena zegoela gure hizkuntzaren kontra. Halere, giro hartan guraso kontzientziadun batzuek, debekuak eta giro txarra gorabehera, ongi jakin zuten euskara beren seme-alabei irakasten eta haien kontzientzietan txertatzen, belaunaldien arteko etenik sortu gabe. Beraz, zaila bazen ere, Estatuak bultzaturiko erdal giroaren kontra, ez zen inola ere ezinezkoa euskaraz berba egin eta seme-alabei irakastea, eta horien froga eta lekuko bikainak dira gaur arte etxeko giroan gure hizkuntzaren segidari eutsi dioten familia ugariak. Hala ere, beste batzuek, agintarien eta toki batzuetako gizarte presioengatik, beldurragatik, kontrako giroagatik, arduragabekeriak edo nahiago duzuenagatik, ez zuten jakin betetzen beren betebeharra, agian umeei euskal izena ipintzeaz landa, eta harrezkero, justifikaziotzat euskara Francok erabat galarazi zuelako aitzakia errepikatzen dute behin eta berriro. Diktadorea baina, orain berrogei urte hil zen, eta harrezkero denbora izan dugu geuk geure kontutik zerbaite onik egiteko.

EUSKARAK ZERTARAKO BALIO DU?

Historiaren aldaketa eta gizarteko mugimendu guztien iturri eta eragile nagusia, marxisten ustez, ekonomia da. Egia esan, formulazio "zientifikoa" Treveriskoarena izan bazen ere, gaur egun, eta nik neuk betidanik ere esango nuke, Karl Marx nor zen jakin gabe ere, horixe errepikatu digute luzaro pertsona batzuek, buruan zeramaten idealismo nabarmenaren ispilu: "Euskara ikasi? Zertarako baina? Horrek ez du ezertarako balio". Horrelako zerbaite pentsatzen

zuten, nolabait, aitak, amak edo guraso biek euskaraz jakin arren beren seme-alabei erdara besterik irakatsi ez dieten euskaldun askok. Eta okerrera hauxe zen, ezaugarri nazional nagusi hori, euskara, gutxieten zela, nondik eta ustez abertzale ziren pertsonen aldetik, bai eta politikariengandik ere.

Zenbat aldiz ez ote ditugun entzun guztiok gaztetan, eta geroago ere, era honetako galdera pragmatikoak, ondoren honela segitzeko: "*!Oye, que yo soy tan vasco como tú! O más, que tengo trescientos mil apellidos vascos*". Kezkagarria da, nik uste, "*Ocho apellidos vascos*" moduko film azaleko, erdi folkloriko¹ eta topikoz beteak, gure artean hain arrakasta handia lortzea, bai eta "gure" telebistan bertan izan duen segida absurdoa ere. Uste izatekoa baitzen, euskaltasuna deituran oinarritzen segitzeko joera zaharkitua aspaldian gauditua genuela, baina ikusiak ikusita, zalantza egin behar.

Eta noiz eta orain, ofizialtasunari esker, euskara behingoz balioesten hasi garenean, eta lanpostu batzuetarako euskara jakitea eskatzen hasiko zela zirudienean, historian orain arte gure herriak etengabe pairatu duen zokoratze ofizialaren nolabaiteko konpentsazioa ekarriz, erdaldun batzuek protesta, eta Euskal Herrian euskaldunei zerbitzuak euskaraz eskaintzeko aukera ukatzen zaie. Are harrigarriagoa gainera: euskaragatik protesta egiten duten berberok dira, aldi berean beren produktu eta zerbitzuak atzerritarrei frantsesez, ingelesez edota alemanez eskaintzen hasi diren berberak.

Handiagoak ere ikusiak ditugu. Adibidez, 1998ko abenduaren 9an, Champions League-ko partida bat jokatu zen Bilbon, Athletic Bilbaoren eta

1. Harrigarria da gure artean oraindik deitura kontuan dagoen ezjakintasun maiuskulua. Gurasoengandik aurpegiaren forma, garaiera, begien kolorea, sudurraren, belarrien itxura edo odol taldea jasotzen ditugu, besteak beste, herentzia genetikoaz, baina deiturak ez, deiturak gobernatzen dutenen komenientzia, lege, apeta edo kapritxo hutsak dira, eta, gainera Estatu bakoitzak bere gogara mugatzen ditu. Espainian bi deitura ditugu, eskuarki aitaren lehenengoa aurretik eta bigarrenik amaren lehenengoa, eta kito, legez ez dago gehiago, norbaitzuek, jolas moduan, ordena horretan deiturak metatzen segitzen duten arren. Frantziako euskaldunek, ordea, deitura bakarra daukate: aitarena, hango Estatuak horrelaxe erabakia duelako, eta luzaro andreek, behin ezkondu eta gero, beren familiarena galduta, senarrarena eraman beharra izan dute. Gaur, gainera, iraganean Euskal Herrian oso ohikoa izaten zen bezala (gogora dezagun aita Manuel Laramendiren kasua, XVIII. mendean), posible da seme-alabei lehenik amaren lehen deitura ipintzea, eta bigarrenik aitarena. Baina mundu zabalean eredu nagusia Frantziakoa da (Ingalaterra, Alemania, Estatu Batuak, Errusia, Txina...) eta jendeak deitura BAKARRA darara. Bestalde, Espainia-Frantzietan administrazioak pertsonen deiturak aldagabe eta betiko kontserbatzeko duen obsesioa gorabehera, mundu zabalean deiturak erraz alda daitezke. Israelen, adibidez, aldaketarik gabe gaur ez litzateke posible, bi mila urtetako erbestealdiaren ondoan, inork hebreerazko deiturarik izatea, eta hor daude, kasu, Netanyahu, Sharon, Peres (ez du zerikusirik erdarazko Pérez-ekin), Rabin, Ben Gurion, guztiak joan den mendean sortuak...

Galatasaray Spor Kulübü (= Kirol kluba) turkiar taldearen artean. Hura zela eta, hainbat futbolzale turko etorri ziren. Hartara, Bilboko jatetxe ezagun batek, gizabide eta abegikortasunaren seinale handiz, jatekoen karta TURKIERAZ itzulita eskaintzen zien bisitariei, jatetxe horrek bai orduan eta bai geroago ere bertoko mintzaira erabat zokoratzen segitzen duen bitartean.

Kontu hau, baina, ez da berria, jada Sabino Aranak berak esana eta idatzia zuen, bai eta erremedio zuzena iragarri ere: euskara merkataritza-arloan

Hizkuntza nazionala, definizioz, nazio osoarena da, edota nazio osoak bere hizkuntzatzat hartzen duena, eta ondorio logikoaz, horren zaintza herritar guztiei dagokigu, guztion betebeharra da

sartzea, irabazpide eta lanpostu ordainduak lortzeko beharrezko baldintza izatea! Orduantxe mugituko lirateke, bai, ahozko sasi-abertzale batzuk.

EUSKARA GURE HIZKUNTZA BADA, BERAREN ALDE EGITEA GUZTIONA DA

Hizkuntza nazionala, definizioz, nazio osoarena da, edota nazio osoak bere hizkuntzatzat hartzen duena, eta ondorio logikoaz, horren zaintza herritar guztiei dagokigu, guztion betebeharra da. Baina halere, batzuek pentsatzen dute euskararen alde egitea ez dela haien egitekoa. Horretarako, badi-rela euskaltzainak, ikastolak, B eredu edota Eusko Jaurlaritzako hezkuntza zein kultura arduradunak, eta horiekin nahikoa dela. Eta, beraz, herriko jende arruntek ez dutela hor ezer egin behar. Gehienik ere, umeak eskola edo ikastolara bidali, han euskara ikas dezaten. Eta ondorioz, lehen bezala, etxean beti erdaraz segitzeko.

Baina euskara beren eguneroko gizarteko eta merkataritzako tratutik saihesten duten horiek

ez dute berdin jokatzeko erdarekin, ondo arduratzen baitira Frantzia-Espainietako hizkuntza ofizial horiek ahalik eta ondoen erabiltzen, lantzen, publizitatean agertzen eta balioa ematen.

Traturako hizkuntza bat ondo ikasi eta egiteko, eskolaz gainera, eguneroko erabilera ere beharrezkoa da, eta hori ez dago, neurri batez behintzat, agintarien esku. Euskararen alde dagoenak hori bere eguneroko jardunean ere erakutsi behar du, praktikan erdararen alde dagoela erakusten duen bezalaxe. Horixe da egoera honetan hiritarroei eskatu behar zaigun jarrera positiboa. Ongi daude noizik behinkako manifestaldiak egitea gure hizkuntzaren alde, baina erabakigarriena eguneroko praktika dugu.

FIKZIOZKO HIZKUNTZA IRAKASTEN ARI GARA GURE IKASTEGIETAN

Edozein naziotara goazenean, bertako hizkuntza ikasteko asmoz, bertan egoteak berak, bertako toki eta kaleetako hizkuntza-paisaia propioarekin, egunero ikusten ditugun kartel, iragarki, errotulu eta giroarekin, etengabeko laguntza jasotzen dugu, non gauden eta bertako berbeta nolakoa den gogorazten diguna. Euskal Herrian, aldiz, kaleko idazkiak, denden izenak, iragarkiak etab. ia guztiak erdara hutsez dauzkagu, Espainiako beste edozein hiritan bageunde bezala², bertokook, antza, espainola ondo ikas eta erabil dezagun, merkatariek Estatu zentralistaren morroi zintzo.

Gure hizkuntza ez da urria eta badauzka hitz ugari. Eta jakina, badugu horiek euskaraz izendatzeko lexiko egokia ere, gure ikastegietan ederki irakasten denez: *gozotegiak, okindegiak, janari dendak, liburu-dendak, burdindegia, arrandegiak, farmaziak, papertegiak...* baina izen horiek kaleko errealitatean barik, testuliburu eta hiztegietan ikusten dituzte gure ikasleek, ez eguneroko benetako bizitzan, oraindik euskararekiko arduragabekeria nabaria dugu eta. Nola nahi dugu gure ikasleek beren artean euskara erabili eta praktika dezaten, inguru osoa erdaraz jartzen badiegu eta bertoko giro eta mezu guztiek erdararen apologia besterik egiten ez badute?

Euskaldunok maiz ez gara konturatzen geure eskuan daukagula gure herriaren berezitasun

2. Hau ez da aspaldian gertatzen, ordea, Katalunian, eta Bartzelonako kaleetatik osteratxo bat egitea aski da, gorra bagina ere, begiek esan diezaguten non gauden eta bertako hizkuntza zein den. Gure dendari eta merkatariek badute hor non ikas.

nazionalak bistaratzea. Batzuetan kexatu egiten gara gu espainol arruntak bagina bezala presentatzen gaituztenean, baina badirudi ez garela ohartzen kanpotarrei zer panorama linguistiko erakusten diegun. Abertzaleak omen gara: horixe diote behintzat bertoko hauteskundeen emaitzek. Baina gure kaleak, hizkuntza idatziari doakionez, Zaragozakoak, Madrilakoak edo Sevillakoak bezain espainolak dira, deitura batzuk salbuetsirik.

Bestaldetik, aspaldian kanpotar asko etorri dira gure artean bizitzera. Zer eskubidez eskatuko diegu horiei, integrazioaren izenean, euskaraz ikas-teko, edo beren establezimenduen izena bi hizkuntza ofizialetan jar dezaten, geuk, bertokook, abertzaleok, ez dakit zenbat euskal deitura omen dauzkagunok, etsenplu eman beharko geniekeenok, geure denda, saltoki eta biltoki politikoetan euskaldunei euskaraz mintzatu, irakurri eta zerbitzatuak izateko eskubidea bermatzen ez diegunean? “Gure merkatariek, zioen duela gutxi Bizkaiko Diputazioaren kultura arduradun batek, ez dute oraindik berenganatu euskararen berreskuratzean beraiei doakien zeregina”. Eta tamalez badirudi horrela segituko dutela legez eta goitik hori betearazten ez bazaie.

NOR GARA GU, ZER GARA GU? PAISAIA LINGUISTIKOAREN ARABERA

Guregana gero eta turista gehiago heltzen dira, gure leku politak, kaleak, plazak eraikin dotoreak, parkeak eta museoak ikusi eta bertoko sukaldaritza dastatzera, eta bertoko ‘ciceroneak’ berau Sevilla, Madril edo Guadalajara balitz bezalako azalpenak ematen dizkiete, gehienetan bertoko hizkuntza nazionalari buruzko aipamenik gabe. Ez dakit nork, zergatik eta nolako programaz kontratatzen diren pertsona horiek, baina susmoa dut aukera ez dela egiten, gure egiazko nortasuna erakusteko beharko litzatekeen eskrupuluaz.

Duela bi hamarkada (1992an), Bartzelona Olinpiar Jokoen hiria gertatu zenean, katalanek, ordea, ongi jakin zuten horretaz baliatzen Kataluniaren izena eta izana, hizkuntza eta bertako kultura lau haizeetara zabaltzeko. Gurean, gidari horietatik, adibidez, zenbatak dakite euskaraz, euskal historiaz edo gutxienezko euskal kulturaz? Eta ez badakite, zer mezu eta interes pertsonal izan dezakete kanpotarrei ardura ez dien hizkuntzaz eta kulturaz ezer esateko?

Euskararen transmisioa eta irakastea, neurri handiz, irakaskuntzaren eskuetan utzi dugu. Baina paisaia linguistikoaren bitartez ere badira gauza asko, kalean eta begiekin ikas eta berrets daitezkeenak. Agian lehen egunean ez, baina hurrengoan eta hurrengoan, egunero kaletik ibiltzen garenean, pixkanka eta konturatu ere egin gabe, lehen soilki *carnicería* irakurtzen genuen lekuan orain, horrez gainera, *harategia* behin eta berriro badakusagu, laster izen hori ere buruan geldituko zaigu, eta berdin *arrandegia*, *frutategia*, *merkatua* edo *gozotegia* ere, eta hitz horien osagaien esanguraz errazki jabetuko ginateke autobusetan, erdarazko hitzen ondoan, *sarrera* eta *irteera* ere ikusten ditugunez. Horrek, gainera, edozein arrotz zein bisitariri erakutsiko lioke non dagoen, Katalunian gertatzen den bezala.

Euskararen transmisioa eta irakastea, neurri handiz, irakaskuntzaren eskuetan utzi dugu. Baina paisaia linguistikoaren bitartez ere badira gauza asko, kalean eta begiekin ikas eta berrets daitezkeenak

Ene ustez, denda-izen arrunt guztiak eta beste lanbideetako bulegoak ere (*abokatuak*, *notarioak*, *aholkularitzak*, *medikuenak*...) bertoko hizkuntza ofizial bietan jarrarazi beharko liriateke, hiritar guztiak eskubide berberaz tratatzeko. Baina hiritarren eskubidea dena partikularren sentiberatasun edo ardurapean uztea ez da nahikoa. Gogora dezagun zer gertatu zen toki publikoetan tabakorik ez erretzeko gomendioarekin: ez zen benetan bete debeku finko bihurtu zen arte.

Elebitasunak, jakina, problema bat dakarke, eta gure herria pixka bat ezagutzen duen edonork hau erraz ulertuko du: dendaren izena jartzea erabat libre utziz gero, berehala anabasa osoa izango genuke. Batek *Arategi*, besteak *Harategi*, hurrengoak *Harategia*, eta ez da faltako belarriz *Arategui* edo *Arateguia* jarriko lukeenik, *Okelategi* asmatuko luketenak ahortzi gabe. Hori izen arrunt soilaz, baina ondoren ordena sintaktikoa dator: eta hor *Mikel*

Harategia zuzenaren orde, gutxienez *Arategi Mikel*, *Harategia Mikel* eta *Arategia Mikel* sortuko lirateke, gaur egun ere bazterretan ikusi dugunez.

Hori ekidin eta gauzak zuzen eta ondo egiteko, gure oraingo euskalduntze egoera oraindik apal honetan, ezinbestekoa litzateke, saltokien izenak ipintzerakoan, aurretik administrazioak denda, bulego eta abarren izen-zerrenda eskaintzea (Euskaltzaindiak duela urte asko horrelako batzuk publikatu zituen, orain eguneratu beharrekoak) eta hori jendeari eskaini, ondo azaldurik, bere saltoki, denda edo bulegoak horien arabera izenda ditzaten.

Gauza bat baita nazioarteko berbak ontzat ematea, munduko hizkuntza gehien antzera, eta beste bat, edozein erdarakada edo hitz berri oker idatziak bultzatzea

Izan ere, denden kanpoko kartelen neurri, zabalera, hormatiko irteera etab. udalak ontzat eman behar dituzenez, orain dugun egoera linguistikoa normaldu arte behintzat, halako arauak jartzea ere beharrezkoa izango delakoan nago. Kartelen zuzentasuna beharrezkoa baita irakaskuntzan ikasleek hartu duten eredia sendotu eta finkatzeko, jende guztiak gauzak ongi ikas ditzan, eta gure hizkuntzaren presentzia behar bezain duina izan dadin, esperientziaren arabera, arrazoi misteriotsu bategatik gaizki jarritako kartelek imita-kopiatuak izateko mirarizko ahalmena daukate eta.

Berez istorio jakin-jakina da, baina oraindik horren berri ez dutenen fabore, berriro kontatuko dut turkieraren kasua. Turkiarrak Siberiako estepetatik gaur duten herrialderaino Erdi Aroan heltzeko bidean Islama onartu eta musulmandu ziren. Erljio berriaz batera Koraneko hizkuntzaren, hots, arabieraren grafia sistema onartu zuten beren hizkuntza propioa idazteko. Horraino ez dago ezer harrigarririk, pertsiarrek bere ere gauza bera egin baitzuten, hizkuntza indoeuroparra eduki arren, hau da, errusiera, aleman edo italiararen familiakoa.

Izan, arabiera hizkuntza aberatsa da konsonanteetan, baina oinarriz hiru bokal besterik ez dauka. Turkierak, aldiz, zortzi bokal dauzka, eta eragozpen handiak zituen arabiar letrekin ongi idatzia izateko. Hori dela eta, joan den mendearen hasieran (1928) Mustafa Kemal Atatürk presidentearen erabakiz, turkiera, ordura arte erlijioaren eraginez arabiar alefatoaz³ idazten zena, latin alfabetoko letrekin idatzia izatera pasatu zen, Estatu eta bizimodua Europar moldeetara hurbiltzeko helburuz.

Alfabeto bien arteko ezberdintasunagatik, bistan zegoen ez zela hain erraza izango jendeari latin-idazkera irakastea. Sistema berriari okerrak saihesteko, Kemal presidentek erabaki gogorra hartu zuen: gaizki idatziriko kartel publiko guztiak diruzko isunaz zigortuak izango ziren. Gaztiguaren beldur, jendeak berebiziko ardua izan zuen kartel bat idatzi eta, beren denda jarri baino lehenago, hura ongi ote zegoen ziurtatzeko. Nik neuk multa jartzetik ez, baina, gutxien-gutxienez, kartel horiek jendarean jarri aurreko kontrola ezarri bai, udaleko arduradun kompetenteren batek, Akademiaren erregelen arabera, baimena idatziz adierazia emanez.

Hau gogoratzea ez dut uste tontakeria denik, gure artean oraindik dagoen euskal maila ez jasotzea ikusita, non edozein erdal hitz, k eta tx-ren batuekin mozorrotuz gero, besterik gabe euskal-tzat ematen dugun. Gauza bat baita nazioarteko berbak (*txokolate*, *penizilina*, *ornitorrinko*, *fisika kuantiko* edo *galaxia*, esaterako) ontzat ematea, munduko hizkuntza gehien antzera, eta beste bat, zeharo ezberdina, edozein erdarakada edo hitz berri oker idatziak bultzatzea, zoritxarrez oraindik maizegi bazterretan ikus daitekeenez.

POLITIKARIEN BEKATU LARRIA

Politikariak eta herri-ordezkariek aspaldion hauteskunde bitartez aukeratzen ditugu, demokrazian behar den bezala. Horrela, batzuek, jaso duten postu publikoa jendearen botoekin lortua

3. Arabiar idazkera, hebreera bezala, feniziar idazkera zaharretik eratorria da. Lehen letra alef deitzen da eta hortik etorri da alefato hitza letra horien bilduma berezia adierazteko. Antzinako greziarrek feniziar sistema hori hartu, zeinu batzuk pixka bat aldatu, eta falta zituzten beste batzuk erantsi, bokalak batez ere, eta hortik sortu zuten berena, letren izenetan ere bere jatorri semitikoaren salatzen duena: feniziarren behialako alef, bet, gimmel, dalet...hura, horrela, grekoen alfa, beta, gamma, delta...bilakatu zen, hortik, azken buruan, erromatarrena sortzeko, ukituren batzuekin mendebaldeko herri guztiena bilakatu dena: a, be, ce, de... ordena bera mantenduz, Alfa eta beta bi lehen letra grekoetatik alfabeto izena sortu zen eta geroago latindarren abecedarium-etik gure abecedarioa.

dutela pentsatuz, egiten duten gauza orok jendearen aldeko berrespina duela sinestera eramaten ditu. Baina zoritxarrez, oraindik batzuek –gero eta gutxiago, zorionez–, ez dute aukerarik izan erdaraz segurki daukaten maila jasoa euskaraz ere lortzeko, eta horregatik jendearekin mintzatzean aski ongi moldatzen diren arren, batzuetan eragozpenak izaten dituzte idazteko orduan. Horren ondorioz, hizkuntza idatziari doakion karguren bat jasotzen dutenean, gogoan hartu beharko lukete kome-niko litzaiekeela, euskarari doakionean, aholkulari bat hartzea, kaleratu baino lehen beren idatziak berrikusi eta, behar izanez gero, zuzenduko lituzkeena. Gogoan izan gazte-jendearen artean, autonomia-urte hauetako irakaskuntzari esker, gero eta euskaldun alfabetatu gehiago dagoela eta horiek, hautetsi baten lanean ortografia, morfologia edota sintaxi aldean idaztokerrak ikusiz gero kritika publikoa egin lezaketela, politikari edo hautetsi hori mai-seatu edo barrengarri utzi nahi izateko. Era horretako aholkulariak, bestalde, aspaldian ari dira lanean eta ondorioak askoz hobeak izaten dira.

Baina, euskaldunok harrokeria eta burugogortasuna geure-geureak ditugun bekatuak dira eta, halere, gure prestakuntza eskasa eta inoiz lotsagarria ere badela jakin arren, askotan ez dugu amorerik ematen, eta txarto egindakoa aurrera eram-nahi izaten da, desegokiro harturiko erabaki horiek egiten duten kalteaz arduratu gabe.

Hizkuntza-politika arrakastatsua izan dadin, bistakoa da alde guztietatik koordinatua izan behar duela. Ikastegietan irakasten den euskarak deus gutxi balioko du, gero, kalean, administrazioan, kirolean, adierazpen publikoetan erabiltzen denarekin batera ez badator, arduradun bakoitzak gauzak bere erara egiten baditu, aldamenekoak zer egiten duen jakin gabe.

Gure koordinaziorik ezaren adibideak asko-txo dira. Orain arte ofizialtasunik izan ez duen hizkuntza batek bere formak ondo zaindu behar ditu. Euskara batuak, kulturarako zereginaz gainera, baditu beste betebeharrak batzuk ere: normaltasuna lortu eta horren irudi publikoa ematea, ahal den neurrian dotoretasuna, termino zaharkitu edo oso dialektalak saihestea, eta bere funtzio nazionala azpimarratzea, adibidez.

Legez Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako euskal eremuan euskara ofiziala bada, ofizialtasun hori euskaldun hiritarrei beren

eguneroko bizitzan leku publikoetan eskaini behar diegu, erdaldun hiritarrei erdaraz eskaintzen zaien normaltasun berberaz. Hizkuntza erabiltzeko da, eta ez soilik jakiteko. Eta euskaldunok oraindik leku publiko asko aurkitzen ditugu geure hizkuntza erabiltzeko aukerarik ematen ez digutenak. Merkataritzan batez ere.

Merkatari batzuen arduragabekeriaren aurrean zer egin? Eta arduragabekeria edo erdarazko lehenaldia inertzia diot, batzuetan hitz itsusiagoren bat ez esatearren. Horrelako etsenpluak ugari aurki ditzakegu. Merkataritzako errotulazioa eta informazioa euskaraz (ere) jarri behar zela aipatu zenean, gora-goraka hasi ziren batzuk, geroxeago, kanpotar turistaren etorreraz, argibideok, inolako protestarik gabe eta lasai aski, ingelesez, frantsesez eta alemanez ere jarri dituzte. Baina euskaraz ez.

Hizkuntza-politika arrakastatsua izan dadin, bistakoa da alde guztietatik koordinatua izan behar duela

Autogobernuak espainolari lehengo ofizialtasuna berretsi dio eta euskarari aldiz berriki ekarri, baina ia egunero dakusagu badela gure artean euskararena ofizialkidetasuna besterik ez dela gogorazten digun goi kargu bat, euskarari beti erdararen konpainia ezarrarazten diona, behialako “*señorita de compañía*” derrigorrezko bat bezala, baina erdara bakarrik dagoenean ondo isiltzen dena. Eta hiritar euskaldunak, nazio honen oinarritzko balio bati giroz kontra gogor, zintzo eta duin eusten dionak, bazterrean utzia segitzen du, bigarren mailako hiritartzat, abandonaturik, euskaraz onartua eta aintzat tratatua izateko eskubide praktikorik izan gabe.

Txarrean, euskaldunoi dagokigu, antza, geure eskubideak eskatu eta zaintzeko ardura izatea, geure eskubideen jendarme geu izatea, kasurik egiten ez digutenean, lege-hauslea zigortua izango ez delako segurtasun osoaz gainera.

Irtenbidea ez da erraza. Baina euskaldun asko jada nekaturik gaude geure nazioaren eredu izaten, eredu hori duintasunez mantentzeak gure inguruko lege-hausleekiko borroka etengabe jarrotea esan nahi duenean... laguntza administratibo eragilerik gabe. Gary Cooper-en film ospetsu haren antzera, *High Noon* espainolez *Bakarrik arriskuaren aurrean* gisa itzuli zena, hots, *Sólo ante el peligro*.

Gelditzen zaigun bide bakarra da, etsipenaz landa, aspaldian abertzaletasunak markatu duena, ekiten irautea, herri-minez, gure nazioarenganako maitasunak bultzaturik, burua agertu, eta duela gutxi talde feminista euskaldun batzuek proposatu bezala, elkartu eta geure eskubide linguistikoak errespetatzen dituztenekin bildu, elkarren artean ideiak erdibanatu, guztion kritikekin osatzeko. Fun-

Gelditzen zaigun bide bakarra da, aspaldian abertzaletasunak markatu duena, ekiten irautea, herri-minez, gure nazioarenganako maitasunak bultzaturik, burua agertu, elkartu eta geure eskubide linguistikoak errespetatzen dituztenekin bildu, elkarren artean ideiak erdibanatu, guztion kritikekin osatzeko

tsean tratu-berdintasuna lortu beharko genuke. Prezio berean, tratu berbera eskatu. Batzuek ulertzen duten balio hiritar bakarra dirua baldin bada, berei ere aplikatu beharko diegu. Prezio bera ordaintzen denean, produktua eta zerbitzua bera eskatzeko eskubidea dago. Guri erdaldunei bezainbat

kobratzen bazaigu, ez dezagun permiti harrera eta zerbitzu eskasagoaz trata gaitzaten. Berdintasuna ez baita bie berdin... erdaraz. Bakoitzari bere hizkuntzaz baizik. Gainera, horixe egiten dute askok atzerritarrekin ere. Izango al dugu geure herrian euskaldunok atzerritar horiek baino hizkuntza-eskubide gutxiago, legeak erdaldunekin parekatzen gaituenean?

BIHAR-ETZIKO EUSKAL AZOKA

Azken urteotan modan jarri da herri batzuetan Erdi Aroko itxurazko azokak antolatzea. Horien bitartez, gaurkooi antzinako merkatuak nolakoak izan ziren erakutsi nahi zaizkigu. Ideia ona iruditzen zait. Jendea orduko arropekin agertzen da jantzirik eta salpostuei ere garai hartako antza darie. Lastima, baina! Jantziak, kendu-ipintzeko errazak izaten dira, baina ustezko merkatari horien hizkuntza ez da izaten egiazkoa. Markinan, Gernikan edota Bilbon XVII. mendeko azoka bat erdaldun hutsezko salerosleekin eszenografiatzea, ene ustez, Betlehem bat astronauta eta estralurtarrekin antolatzea bezain anakronikoa da. Faltsua eta burla hutsa.

Nik neuk bestelako azoka proposatuko nuke, askok espero dugun etorkizunaren iragarle. Atzokoa barik, biharko giroa irudikatzea. Biharko herri erabat euskalduna, bizilagunez eta hizkuntzaz, saltoki, taberna, etxe berezi eta gainerako toki jakingarri guztiak euskaraz errotulaturik, ea holako ikuskizunak zer nolako sentimenduak sorrarazten dizkigun, ea hola-koak egunerokoak bihurtzeko irrika sortzen digun, euskara edozertarako balio digun lilura horrek itxaropenaren begiak irekiarazten dizkigun. Ea aldame-neko herriek ere ideia hori imitatzen duten, ea Euskal Herri euskaldunak irudimen soiletik benetakotasunerako pausotxo bat gehiago ematen duen. Desafio hor dago. Ben Yehudak hebreeraren birpizteaz esan zuenez, "nahi baduzue, ez da ametsa izango".

